

IRUN / Irutenek euskaraz irakurtzera bultzatzeko egitasmoa antolatu du

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa martxan jarri du Irun Iruten Euskara Elkartek. Ekintza hau Irungo Udala, Ikust Alaia liburutegia eta Elkar eta Oskarbi liburu denden laguntzaz antolatu da, eta ekainaren 30a arte luzatuko da.

Egitasmoa atzo aurkeztu zuten liburutegian Belén Sierrak, Kultur ordezkariak; eta Arantxa Iriartek, Irun Iruten Elkarteko kudeatzaileak. 'Irakurri, gozatu eta oparitu' planaren xedea "euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea da", azaldu zuen Iriartek. "Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pauso eman behar dira bertan parte hartzeko". Lehendabizi, parte hartu nahi dutenek liburutegira joan beharko dute eta, bertan, euskarazko edozein liburu maileguan eskatu. Liburua irakurritakoan, Ikust Alaiara bueltatu eta fitxa "errazerraz bat" bete ahal izango dute partaideek, eta honen truke erosketa txeki bat jasoko dute.

Azken pausoa oparitzea da, "lagun bati, senide bati... edo, zergatik ez, norbere buruari". Txekiearen bidez, irakurleek %25eko deskontua izango dute Elkar eta Oskarbi liburutegietan euskarazko liburu bat erostekoan. Irun Iruten Euskara Elkarteko kidea izanez gero, deskontua %50ekoa izango da.

Gainera, egitasmoa amaitzerakoan, bi hilabete barru, 30 euroko bi txeki zozketatuko dira kanpainan parte hartu duten guztien artean. "Irakurtzen eta gozatzen jarrai dezaten lagunduko duten erosketa txartelak izango dira", azaldu zuen Arantxa Iriartek. 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 15 herritan martxan egongo da Topagunearen bidez, Irunen antolatzen den lehen aldia delarik.

Belén Sierrak Irun Iruten Euskara Elkarteari eskerrak eman zizkion "kanpaina honi atxikitzeko jarri duen borondateagatik", eta Ikust Alaia liburutegiaren "paper garran-tzitsua" azpimarratu zuen.

Euskara elkartetik adierazi zutenez, egitasmoa martxan jarri den herri gehienetan "eragin positibo nabarmena izan du herritarrek liburutegi publikoan egiten duten euskarazko liburu mailegu erabileran. Erabilera horrek liburuen salmentan izan duen eragina ere kontuan hartzekoa da, eta zenbait kasutan nabarmena gainera". Irunen ere, egitasmoak "harrera ona" izatea espero da.